



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

49 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Batxilergoko Lehen Maila, Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena. Osoko Bilkurak baztertutako osoko emendakinak (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaz hitzarmena, delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoa abiarazteko. Osoko Bilkurak baimena emanda (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Lehendakaria premiatzen du, Jesús Javier Marcotegui Ros, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, kargutik ken dezan. Osoko Bilkurak baztertua (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Bertizko Jaurrean egin den egur ateratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Nafarroako flora mehatxatuaren katalogoa sortzen duen dekretuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

- Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako biotopoen babesari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako babesaren garapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Estatuko Aurrekontu Orokorretan Herrilaretan eta Ingurugiroan egin behar diren inbertsioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Tuterako katedraleko klaustroa errestituzioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Mendillorriko banatze-espeditatearen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- “El Vergel” egoitzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Futbol partiduak ematearen gainean Nafarroako Gobernuak dituen irizpideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Las Cañas natur erreserbara iristeko obren eta hainbat herritan markesinak egitekoen kontratazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Orokorren egitura organikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Batxilergoko Lehen Maila, Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO EMENDAKINAK

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak eta Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak hurrengo Foru Lege proiektuari osoko emendakinak aurkeztu zizkieten: Foru Lege proiektua, Batxilergoko Lehen Maila, Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloak eta Gizarte Garantiako Progra-

mak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena. Nafarroako Parlamentuak, 1998ko ekainaren 19an egindako Osoko Bilkuran, osoko emendakinak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen. Nafarroako Parlamentuak, 1998ko ekainaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Foru Lege proposamena bazter uztea.

Proposamen hori 1998ko maiatzaren 14ko 33 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestegui

D saila:
HITZARMENAK

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoa abiarazteko

OSOKO BILKURAK BAIMENA EMANDA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko ekainaren 19an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko Hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, delitua jasan dutenei

laguntzeko bulegoa abiarazteko. Haren testua 1998ko ekainaren 17ko 45 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestegui

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Lehendakaria premiatzen du, Jesús Javier Marcotegui Ros, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, kargutik ken dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Lehendakaria premiatzen du, Jesús Javier Marcotegui Ros, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, kargutik ken dezan. Biltzarrak, 1998ko ekainaren 19an egindako Osoko Bilkuran,

mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko ekainaren 11ko 41 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestegua

F saila:
GALDERAK

Bertizko Jaurrerian egin den egur ateratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Bertizko Jaurrerian egin den egur ateratzeari buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Bertizko Jaurrerian egin den egur ateratzeari buruz, idatziz erantzun diezaioten. Izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantz:

1.- Aipatu oihan-aprobetxamenduak edo egurra ateratzeak eragin al dio Erabilera eta Kudeaketarako Planak aurreikusten duen Bertizko parke naturaleko babes ekologiko bereziko aldeari? Zer azalera hartu du? Zer ondorio izan dira? Nortzuk -teknikariak, Administrazioaren ordezkariak edo beste batzuek- zuzendu eta kontrolatu zuten aipatu oihan-aprobetxamendua edo egur ateratzea? Nork ordaindu zituen aipatu aprobetxamenduaren kostu-gastuak?

Zuhaitzak erori ziren aldeak barreiatu daudenez, zaila izan da hartutako azalera finkatzea. Edonola ere, 6,55 hektarea zehaztu dira esleipen-espeditentean.

Bertizko parke naturaleko hainbat tokitan haizeak bota zituen zuhaitzen egurrik gehiena, atera den hori, alegia, indarreko erabilera eta kudeaketarako planak interes ekologiko bereziko gunetzat jotzen duen horretan dago.

Bertiz parke natural deklaratzearen helburu orokorretako bat zen berezko paisaiari eta parkeko ekosistemen multzoari bere horretan eustea, eta haien bereoneratzea ere, beharrezko gertatuz gero. Hori lortzeko oihanzaintza teknika egokiak erabili behar dira, funtsezko helburua lortzeko, ingurugiroarekiko kalteak saihestuz edo ahalik eta gehiena gutxituz. Ildo horretatik, haizeak botatuko zuhaitzak kentzea aurreikusita dago bai Bertizko oihan antolamenduari buruzko 1963ko programan, bai Bertizko parke naturalaren antolamendu orokorrerako proiektu berriagoan, azken honek parke naturalaren deklarazioaren helburuak bereganatu eta errespetatzen dituela.

Haizeak 1996-97 urteetan Bertizko parke naturalean bota zituen zuhaitz batzuen egurra ateratzea kudeatzen duen teknikaria Zuzendari Kontserbadorea da eta Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiko landa-langileek laguntzen diote lanak kontrolatzen. Indarrean dagoen erabilera eta kudeaketarako plana onetsi zuen azaroaren 27ko 562/1995 Foru Dekretuko bigarren idazatiak aipatzen du Zuzendari Kontserbadorea.

Egurra ateratzearen kostu-gastuak esleipendunak bereganatu zituen eta egin zuen eskaintza ekonomikoan konpentsatu ziren.

2.- Zertako erabili dituzte Bertizko Jaurreritik ateratako zuhaitz eroriak? Nori eman zizkioten? Zer esleipen sistema erabili dute? Zer dirusarrera hartu zuen zuhaitzen ordainetan? Nork hartu zituen?

Hiru oihan enpresari eskaintzak eskatu ondoren, arauk kasuotarako ezarritakoaren arabera, maiatzaren 28ko 1678/1997 Ebazpenaren bitartez esleitu zitzaizkion aipatu lanak Uharteko Barbiur, SL enpresari, milioi bat eta berrehun mila pezetan. 1997ko dirusarrera-aurrekontuko “Parkeen eta naturaren interpretazio zentroen tasak” izeneko 31200-3090 kontusailean, 35910-4 lerroan, abonatu zaio Nafarroako Gobernuari.

Izapide egokiak burutu eta dagozkion lanak egin ondoren, esleipendunak askatasuna zuen materiala nahi bezala erabiltzeko.

3.- Zer teknika eta makina erabili zen egurra ateratzeko? Zenbat bide, pista edo egurra atera eta garraiatzeko bide ebaki, zabaldu edo sortu zen aipatzen ari garen zuhaitzak ateratzeko? Parke naturaleko zer aldetan?

Haizeak botatuko zuhaitz batzuk atera diren aldeei honela deritze: Suspiro, Aiansoro, Agote, Kisuarrieta, Amezti eta Arbera.

Esleipendunak derrigorrez bete behar zituen baldintza tekniko berezien orrietako zazpigarren artikuluan finkatu dira aipatu zuhaitzak ateratzeko erabili behar ziren teknikak eta makinak. Aipatu baldintzen helburua lanak hobeto burutzea besterik ez zen izan. Hauxe dio aipatu artikulua, besteak beste: materialak ibilgailu egokiekin aterako dira, ez oso astunak, eta ahal den neurrian, behintzat, dagoeneko eginak dauden pistetatik ibiliko dira, edota bide zaharrak zabalduz...

Esan beharra dago Kisuarrieta, Agote eta Arberako egurra ateratzeko erabili diren pistak eginak zirela, ordurako; bide zaharrak zabaldu direla Aiansoro eta Ameztikoak ateratzeko; eta Suspiro ingurutik ateratzeko, bide berri laburrak erabili direla eta narrabide zahar bat.

4. Ingurugiro eraginen azterketarik egin al zen, 229/93 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera, administrazio-baimenaren edo aprobetxamendua- ren edo egurra ateratzearen aurretik? Nork egin zuen? Zer xedatu du aipatu azterketak babes ekologiko bereziko aldean aritzeari buruz?

Uztailaren 19ko 229/1993 Foru Dekretuaren bigarren artikuluko l) idazatiak ezarri du ingurugiro eraginei buruzko azterlana beharko dutela hurrengo- goei buruzko plan eta proiektuek: oihan-apro- betxamenduak, baso-soilketa eta oihanen hobekun- tza; eta hurrengo- goei buruzko proiektuek: oihanak deuseztea dakartenak, baldin eta 30 hektareako azalera jarraiari eragiten badiote edo 10 hektarea baino gehiagori, lurraren malda ehuneko 20 baino gehiago bada edo zuhaitzak bertakoak badira. Oraingoan ez dago eragin-azterketarik egin behar- rik, azalera ez delako jarraia eta aipatu hamar hektareak gainditzen ez direlako, eta jarduketaren beraren izaeragatik, ez delako oihan-apro- betxamendua osorik egiten. Edonola ere, esleipen-

espedienteak daraman txostenak arrazoitu egiten du jarduketa eta ingurugiroarendako balizko era- gin kaltegarriak gutxitu egiten dira baldintza tekni- ko bereziekin eta Ebazpenak berak ezarri dituen baldintzekin. Azaroaren 27ko 562/1995 Foru Dekretuz onetsi den Bertizko parke naturalaren erabilera eta kudeaketarako II. plan zuzendariak berak aurreikusi eta ahalbidetu du aipatu jarduke- ta interes ekologiko bereziko aldean.

5. Naturgunea bereoneratu beharrik izan al zen aipatu jarduketaren ostean? Zer neurri zehatz hartu du edo hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak naturgunea bereoneratu eta aipatu oihan aprobetxamenduaren ondorioz jasan ahal izan dituen kalteak konpontzeko? Nola kenduko dira zuhaitzak atera eta garraiatzeko bideak?

Lehen adierazi bezala, baldintza tekniko bere- zien orrietan ageri dira lanak behar bezala egin eta ingurugiroarendako eragin okerrak gutxitu edo kentzeko xedapenak. Aipatu baldintza-orrien hamaikagarren artikulua ezarri du, lana bukatu ondoren, esleipendunak hasieran zeuden moduan utzi beharko dituela jarduketaren ondorioz aldatu direnak. Ingurua bereoneratzeko jarduketak nahi- kotzat jotzen ez badira, esleipendunak hasieran eman zuen fiantsa, esleipen-prezioaren ehuneko 4a, alegia, gorde du Nafarroako Gobernuak.

Esleipendunak inguru naturala bere kabuz bereoneratu behar duen bitartean, Nafarroako Gobernuak zaintza eta kontrola egingo du.

Bertizko Jaurerriko parke naturalean haizeak bota dituen zuhaitzak ateratzeko erabili diren bideak direla-eta, ez dago guztiak kentzeko asmo- rik, aurretik eginak zeuden pista edo bidetan eraiki direlako gehienak eta bisitariak ere erabil ditzake- telako, parkeko beste toki batzuetara iristeko. Toki eta zati jakinetan, egonkortu edo tokiz aldatu beharko dira luebakiak, higadura saihestu, lur-ber- dintzearen zabalera gutxitu, paisaiaren aldaketa gutxitzeko eta lurra prest uzteko berezko landare- dia bereonera dadin.

Eta hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.

Nafarroako flora mehatxatuaren katalogoa sortzen duen dekretuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako flora mehatxatuaren katalogoa sortzen duen dekretuari buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Nafarroako flora mehatxatuaren katalogoa sortzen duen dekretuari buruz, idatziz erantzun diezaioten. Izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu:

1.- Nafarroako Gobernuak uste al du natur lekuneak legezko biderik egokiena direla interes handieneko basa floraren espezieetako habitatak babesteko?

Ez. Nafarroako Gobernuak uste du interes handiena duten basa floraren espezieen habitata babesteak ez duela behar naturguneen sareko babes figura berezirik. Antzeko figura bat sortzeko, NAO n argitaratu behar da eta flora-mota hori dagoen toki zehatzen berri eman eta bilketa bul-

tzatuko luke, espeziea galtzeraino. Hobe da katalogoak proposatzen duen babes orokorra.

2. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du edo aztertzen ari al da naturgune mota berriren bat sortzea gure Komunitatean, mehatxatutako floraren zenbait populazio kontserbatu edo aztertzeko? Baiezkoan: noizko abiatuko dira naturgune horiek?

Ez, lehen esandako arrazoiengatik.

3.- Zein ikerlan hartu dira oinarri Nafarroako flora mehatxatuaren katalogoa egiteko? Zein tekninarik, enpresak, entitatek edo erakundek egin dituzte ikerlan horiek? Noiz entregatu dira eta zein izan da horietako bakoitzaren kostua?

Ingurugiro Departamentuak eta CSICeko Piri-nioko Ekologia Institutuak izenpetu duten hitzarmena dugu azterlanen sorburua. David Guzmán, Daniel Goñi, Pilar Catalán eta Luis Villar ikerlariak idatzi dituzte katalogoaren oinarri teknikoak. 1995eko abenduan eman zituzten azterlanak eta 7.750.000 pezetako kostua izan zuten, Nafarroako flora mehatxatuaren katalogoa esleitzeko abenduaren 17ko 213/92 Foru Aginduaren arabera.

Eta hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.

Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako biotopoen babesari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako biotopoen babesari buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako biotopoen babesari buruz, idatziz erantzun diezaioeten. Izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu:

1.- Zein neurri zehatz hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroan mehatxatutako basa floraren espezieetako biotopoak babesteko? Ba ote du Nafarroako Gobernuak Nafarroan diren florako espezieetako habitat aipagarrienetako batzuk babesteko asmorik?

Mehatxatutako floraren katalogoak definitzen duen babes orokorra da interes handiena duten mehatxatutako flora-espezieen biotopoak babesteko neurririk egokiena, eta ez naturguneen sareko figuraren baten barruan sartzea.

2. Zein toki proposatu behar ditu Nafarroako Gobernuak 92/43 Zuzentarauaren Natura 2000 sarean sartzeko? Zein udalerrri ukitzen ditu? Noiz-

ko aurreikusi da azken eta behin betiko proposamen bat edukitzea Europako Batzorderako?

Orain ari dira Natura 2000 sarea eztabaidatzen eta ez da egunik finkatu Europako Batzordeari proposamen zehatza egiteko. Izan ere, zalantza handiak dira oraindik etorkizuneko babes bereziko guneen babes eta finantzaketa araubideari buruz. Europa mailako interesa duten tokien inbentarioarekin ari dira orain eta, diotenaren arabera, 1997ko abenduaren 31 izan daiteke hori bukatzeko eguna, Estatuan.

3.- Zein dira mehatxatutako basa flora ukitzen duten arrisku arruntenak? Zein neurri zehatz hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak horietako bakoitzaren deusezteko eta basa floraren biotopoak babesteko? Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du bere betebeharrak gauzatzea eta nola kontrolatu ditu arrisku horiek sortzen dituzten jarduerak?

Florarendako ohiko arriskuak izan dira hezeguneak deusezteak eta nekazaritza intentsiboa. Nafarroan egun ez dago mehatxu larri-larria duen landarerik. Kasutan proposatu diren kontserbazio-neurriak izan dira: katalogoak ematen duen legezko babesa, aldiari aldiko azterketa eta tokian tokiko babesa, naturgune deklaratu gabe eta zabalkunderik gabe. Izan ere, berezilariek baztertu egiten dituzte landareak non dauden esaten duten babes-neurriak, bildumatzailak inguratuko lirakeelako, espeziea arriskuan jartzearaino.

Eta hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako babesaren garapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako babesaren garapenari buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako babesaren garapenari buruz, idatziz erantzun diezaioten. Izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu:

1.- Nafarroako Gobernuak pentsatu al du Nafarroako flora mehatxatuaren katalogoa burutzeko prozesuan zehar lorategi botaniko bat sortzea? Nork proposatu zuen hori, eta non? Zertarako? Zein erabileratarako?

Ez. Oso zaila da basa espezieak etxekotzea, lorategi botanikoan sartzeko. Zorionez, Nafarroan ez da galzorian dagoen flora baskularreko espezie katalogaturik, eta, beraz, ez du zentzurik ildo horretatik ahalegintzea, eskura dauden fondoak zeintzuk diren ikusita.

2. Ba al du Nafarroako Gobernuak beste komunitate autonomoek lorategi botanikoak eta germoplasma bankuak garatzearen eta landareak ugaltzeko entseien inguruan egin dutenaren berri?

Espainiako hainbat hiritan badira lorategi botanikoak (Madril, Kordoba, Blanes,...); germoplasma bankuak era badira beste toki batzuetan eta badugu landareak ugaltzeko entseien berri. Baina inoiz ez dira Ingurugiro Departamentuaren esku-menekoak izan eta nekazaritza-ikerketarako institutuekin dute harreman handiagoa, baliabide fitogenetikoak zaintzeko programa nazionalaren

barruan. Nekazaritza Ikerketarako Inститutu Nazionalak (INIA) deialdia egiten du urtero horretarako.

3. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak beste autonomia erkidegoak naturgunez baliatu ote diren mehatxatutako floraren espezieetako biotopoak babesteko? Zeinetan? Legezko zein figura edo zein naturgune mota?

Valentziako Erkidegoak landare-mikroerreserba delakoa sortu du, urriaren 17ko 218/1994 Dekretuaren bitartez, mehatxatutako basa-flora babesteko.

Aragoiko Erkidegoak berreskuratze plana garatu du galzorian zegoen mehatxatutako flora-espezie batendako, abenduaren 28ko 239/1994 Dekretuan, zeinaren bidez Bordera chouardii espeziearendako babes erregimena ezarri den. Aipatu espezierako plana ezartzen den eremua bat dator oso kokatua dagoen endemismoak hartu duen aldearekin.

4. Nafarroako Gobernuak zein administrazio unitatek du eskumena mehatxatutako floraren katalogoa egiteko? Ba al dute langile eta diru baliabide nahikorik lan horri ekiteko? Zein beharriaz dituzte?

Nafarroako Gobernuaren eskumena duen administrazio unitatea Ingurugiro Departamentua da. Katalogoak egun duen kudeaketa-beharra da espezieok hartu duten ingurua zuhurtziaz zaintzea, denboran zehar duten bilakaera ikusteko. Horretarako badago nahiko langile.

5. Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusi du katalogoaren kategoria ezberdinetan zein espezie sartuko diren berrikustea landareen populazioaren bilakaeraren arabera, onetsitako Dekretuak ezarri bezala?

Katalogoa bizirik dago eta ez da urte jakin batean berrikusten. Aitzitik, aipatu populazioen egoeraren etengabeko jarraipenak markatzen du kategoria batean edo bestean sartzea.

Eta hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Estatuko Aurrekontu Orokorretan Herrilanetan eta Ingurugiroan egin behar diren inbertsioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Estatuko Aurrekontu Orokorretan Herrilanetan eta Ingurugiroan egin behar diren inbertsioei buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainean 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestegúa

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Estatuko Aurrekontu Orokorretan Herrilanetan eta Ingurugiroan egin behar diren inbertsioei buruz, idatziz erantzun diezaioten. Izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak hauxe darantzu:

1.- Uste al du Nafarroako Gobernuak Herrilan eta Ingurugiro arazoetako inbertsio proiektu bakoitzean azaltzen diren zenbatekoak egokiak direla 1998. urtean zehar aurreikusita dauden proiektuak aurrera ateratzeko?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hauxe dio Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuan islatzen diren kopuruei buruz: nahikotzat jo behar direla, hasieran, behintzat. Hauxe ere azpimarratu behar: Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren ondorioz, ia erabateko eskumena duela foru lurraldeko herrilanetan. Hala ere, eta Estatuko Administrazioak sustaturiko obrekiko harremana oso estua denez, Nafarroan duten eragina interes handikoa delako, Itoizko urtegia eraikitze kontusailak nahikoa dira obrak behar bezala garatu eta burutzeko. Aipatu obraren exekuzioa oso aurreratua izateak eta eraikuntzaren martxa azkarrak hala berresten dute.

Nafarroako ubidea eraikitzen hasteko kontusailaz denaz bezainbatean, nahikotzat jotzen da ere, 1998ko urtean zehar aurreko izapide administratiboak garatu behar direlako, aipatu obraren

kontratazioa urteko bigarren seihilabeterako uzteko.

2.- Nafarroako Gobernuak Administrazio zentralako ordezkariaren batzuekin biltzeko asmorik al du lerro horietako dotazioak handitzeko, gure Komunitateko inbertsio bezala? Zein lerrotan?

Nafarroak Gorte Nagusietan dituen ordezkariak zaindu behar dituzte Nafarroak Estatuko Aurrekontu Orokorren negoziaketan edo onespean dituen interesak. Nafarroako Gobernuak nahikoa informazio eman du horretarako, Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorrek prestatzen hasi zirenetik.

3.- Nafarroan inbertitu behar diren zenbatekoen murrizketaren sendotzeak ahalegin berezirik eskatuko al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren edo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aldetik, 1998ko Nafarroako Aurrekontu Nagusietan? Zein proiektutan eta zenbat?

Nafarroan ez da aurreikusi ahalegin ekonomiko apartekorik, Estatuak inbertsioa murriztuko omen duela-eta, galdera honen 1go erantzunean adierazi den bezala.

Eta hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Estatuko Aurrekontu Orokorretan Herrilanetan eta Ingurugiroan egin behar diren inbertsioei buruz, idatziz erantzun diezaioten. Izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu:

1.- Uste al du Nafarroako Gobernuak Herrilan eta Ingurugiro arazoetako inbertsio proiektu bakoitzean azaltzen diren zenbatekoak egokiak direla 1998. urtean zehar aurreikusita dauden proiektuak aurrera ateratzeko?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaz denaz bezainbatean, hauxe esan behar: Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuan islatzen diren kopuruak ekintza puntualei dagozkiela, Nafarroak, Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren ondorioz, ia erabateko eskumena duelako ingurugiroaren alorrean.

2.- Nafarroako Gobernuak Administrazio zentralako ordezkariaren batzuekin biltzeko asmorik al du lerro horietako dotazioak handitzeko, gure Komunitateko inbertsio bezala? Zein lerrotan?

Nafarroak Gorte Nagusietan dituen ordezkariak zaindu behar dituzte Nafarroak Estatuko Aurrekontu Orokorren negoziaketan edo onespenetan dituen interesak. Nafarroako Gobernuak nahikoa informazio eman du horretarako, Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorrek prestatzen hasi zirenetik.

3.- Nafarroan inbertitu behar diren zenbatekoen murrizketaren sendotzeak ahalegin berezirik eskatuko al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren edo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aldetik, 1998ko Nafarroako Aurrekontu Nagusietan? Zein proiektutan eta zenbat?

Nafarroan ez da aurreikusi ahalegin ekonomiko apartekorik, Estatuak inbertsioa murriztuko omen duela-eta. Galdera honen 1go erantzunean adierazi den bezala, gai honen inguruko eskumena gureganatua dugulako.

Eta hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Tuterako katedraleko klaustroa errestauratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako katedraleko klaustroa errestauratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako katedraleko klaustroa errestauratzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- 1996an adierazi zuten beharrezko zela Katedraleko klaustroan aritzea. Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren menpeko den Espainiako Ondare Historikoaren Instituiarekin elkarlanean aritu behar izan dugu lan hori ekiteko. Azterlan horietatik atera da eskuhartzea egiteko 10 milioi pezeta jotzen duen proiektua burutu behar dela.

2.- Tuterako katedralak egun duen arazorik larriena mantenimendu txukun eta zuzena egitea da, eta horrek ezin du Vianako Printzea Erakundearen bizkar joan, katedraleko kabildoaren erantzukizun zuzena delako.

Vianako Printzea Erakundeak inbertsio handiak egin zituen 1980tik 1990era eta katedrala behar bezala konponduta utzi zuen. Hona burututako obrak:

1981-1987	Dorrea	138.855.279
1985	Santa Anako kapera	1.000.000
1986	"	3.289.800
1987	"	2.886.791
1988	Estalkiak	19.998.587
1989	"	19.991.516
1990	"	8.799.166

Ondorioz, beraz, kostuen ebaluazio orokorra proiektu zehatzak egin eta gero burutzen da. Tuterako katedralaren arazoan zehatzak eta anitzak dira eta proiektu zehatz txikiak eskatzen dituzte, eskuhartzea noiz egin behar den, orduan idazten direnak. Alferrik litzateke guztizko kostuen balorazioa egitea, epe ertain eta luzeko eskuhartzeak balorazio hori errotik alda dezakeelako.

Jauregi Dekanala ari dira errestauratzen, gaur egun, eskua sartzea behar baitzuen. Proiektua idatzi ondoren ekin zaio eta aurrekontuak 250 milioi pezeta jotzen du.

3.- 1996ko abenduan Ezker Batua Parlamentari Taldeari emandako erantzunean iragarri zen Vianako Printzea Erakundetik eskatua zegoela Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Espainiako Ondare Historikoaren Institutuaren laguntza, Tuterako katedralaren kontserbazio egoeraren diagnostiko zuzena egiteko. Elkarrizketak izan dira epeak eta estrategiak zehazteko. Egin beharreko azterlanak finkatuta daude, dagoeneko, eta baita kapitalek kalte handiagorik ez jasotzeko segurtasun neurriak ere.

Espainiako Ondare Historikoaren Institutuak hitza eman du aholkuak emateko eta ingurugiro-azterlanen eta harriaren nolakotasunei buruzkoen zati bat burutzeko, eta baita klaustroaren mekani-

karen azterketan laguntza emateko ere. Urte bete behar da horretarako, gutxienez, eta zulaketak egin behar dira lurzoruan, proiektua egiteko datuak aterako badira. Vianako Printzea Erakundeak ez daki Ondare Historikoaren Institutuak bestelako konpromisorik hartu duen ala ez.

4.- Tuterako katedralaren konponketa hurrengo lehen kontura izanen da: eraikin historiko-artistikoak zaindu eta bereoneratzea. 75 milioi pezeta aurreikusitako da 1998rako, Jauregi Dekanala konpontzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikularekin eta hurrengoekin bat etorritik.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Mendillorriko banatze-espedientearen egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Mendillorriko banatze-espedientearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Mendillorriko banatze-espedientearen egoerari buruz. Hona Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Prozedura administratiboaren zein egoeratan dago Mendillorriko urbanizazioaren banatze-espedientea?

Instrukzio fasean dago prozedura, entzutea eta jendearekiko informazioa eginak daude, eta interesatuek alegazioak aurkeztu dituzte.

2.- Noizko aurreikusitako du Gobernuak aipatu espedientea izapidatuko dela eta zer izapide geratzen da egiteko?

Hurrenkeraren arabera, egiteke dauden izapideak jarri behar dira lehenbizi:

a) Alegazioei erantzun eta espedientea osatu izapidatzen ari diren jarduketan emaitzekin, esate baterako, Iruñeko Hiriburutza Karta ezartzeari buruzko Foru Lege proiektua, hiri horretako Udalarari finantzaketa osagarria emanen diona, ohikoaz gain, eta Iruñeko eta Eguesibarreko udalekiko hitzarmenak izenpetzea Mendillorriko desatxekipenari buruz.

b) Lurraldeak Mugatzeko Batzordearen derri-gorrezko txostena.

c) Estatuko Kontseiluaren irizpena.

d) Nafarroako Gobernuaren behin betiko ebazpena eta Nafarroako eta Estatuko aldirikari ofizialean argitaratzea.

Daten aurreikuspenari buruz, ez dago ziur jakiterik, izapide batzuk gauzatzea ez dagoelako Nafarroako Gobernuaren esku, soilik.

Edonola ere, aipatu nahi dut Departamentu honen funtsezko helburuetako bat dela Mendillorri Iruñeratzeko prozesuari buru ematea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluekin

eta hurrengoekin bat etorritz.

Iruñean, 1997ko azaroaren 20an

Toki Administrazioiko Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“El Vergel” egoitzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak “El Vergel” egoitzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 21eko 67 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kide den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak galdera egin du “El Vergel” egoitzarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluekin eta hurrengoekin bat:

1. Zein da, 1997ko urriaren 1eko datarekin, bertan bizi den pertsona-kopurua?

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuari atxikitako “El Vergel” egoitzak 133 egoiliar ditu 1997ko urriaren 1ean.

2. Horietako zenbat dira lagunduak?

Data horretan zeuden egoiliarretatik, 60 pertsona ziren lagunduak.

3. Zein da plantilaren osakera: lanean diharduten pertsonen kopuru osoa, lanbide-prestakuntza zehaztuz.

Hurrengo plantila dago Egoitzaren jardunari aurre egiteko:

Zenbat pertsona	Kualifikazioa
6	O.L.T
1	Erizaintzako bulegoburua
1	Ugazaba andrea, gobernatzeko lanetan
1	Gizarte langilea
2	Administrazio laguntzaileak
1	Administrazioko bulegoburua
14	Erizaintza laguntzaileak
39	Ganbarari-garbitzailea. Zerbitzu Orokorrak
6	Sukaldariak
1	Lehen mailako sukaldaria
1	Sukaldeko burua
1	Atezaina
1	Egoitzako zuzendaria
1	Biltegiko arduraduna
1	Zerbitzu teknikoen burua
1	Ofizial administratiboa
5	Bulego-mezulariak
1	Gobernatzaileordea

4. “El Vergel” egoitzako inbertsioak izeneko 31210-0 aurrekontu-lerrotik zenbat bete da? Aipatu aurrekontu-kontusailetik zer kopuru erabil daiteke?

“El Vergel” egoitzako inbertsioak izeneko 31210-0 aurrekontu-lerroaren betetzeari dagokionez, laurogeita hamar milioi zortziehun eta bederatzita mila pezeta (90.809.000.-) baimendu dira, guzti-

ra. Berrogeita sei milioi seiehun eta laurogeita hamaika mila pezeta (46.691.000.-) geratzen dira erabilgarri.

Hori guztia jakinarazten dizut, bidezko ondorio-etarako.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Futbol partiduak ematearen gainean Nafarroako Gobernuak dituen irizpidei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak futbol partiduak ematearen gainean Nafarroako Gobernuak dituen irizpidei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kide den Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak galdera egin du futbol partidak telebistaz emateari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Ezagutzen al ditu Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Sustapen Ministerioak eta Televisión Española futbol partiduak orain arte eman diren maiztasun, ordutegi, kalitate eta interes berdinekin emateari buruz dituzten irizpideak?

Ez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez ditu irizpide horiek ezagutzen.

2. Zein iritzi du Herrilan Departamentuak telebista digitala hasten denetik emanen diren futbol partiduei buruz, orain ematen direnekin konparatuta, kopuruaren, ordutegiaren, kalitatearen eta interesaren aldetik?

Ez dakigu telebista digitala hasten denetik emanen diren futbol partiduek, orain ematen direnekin konparatuta, kopuruaren, ordutegiaren, kalitatearen eta interesaren aldetik izan dezaketen

eragina negatiboa izanen ote den. Beraz, ezin dugu gure iritzia azaldu.

3. Ezagutzen al du Departamentuak noiz argitaratuko den interes orokorreko izendatuko diren eta beraz ordainketarik gabeko telebisten bidez emanen diren kirol emankizunen zerrenda?

Komunikabideen bitartez iristen zaizkigu berriak guri ere. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentu honetan ez dakigu ofizialki interes orokorrekotzat joko diren kirol-ikuskizun zehatzen zerrenda noiz argitaratuko den, ezta ordaintzeko telebistatik emanen direnena ere.

4. Kontsumitzailearen defentsaren printzipioa aplikatuta, aurreikusi al du Departamentuak, bere kasa edo beste Departamenturen batzuekin batera, kanpainiaren bat egitea telebista digitalaren kontzeptua edo telebista horrek dituen alde onak eta txarrak zabaltzeko?

Departamentu honetako Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak, beste erakunde batzuen lankidetzarekin, haibat mintegi antolatuko du informazioaren gizarte berriaren teknologia eta zerbitzuei buruz. Horietako batek telebista digitala hartuko du gaitzat.

5. Ba al daki Departamentuak telebista digitalaren aparatu hartzailleetako instalatzaileen erregistroa ezarrita dagoen edo ezartzeko asmorik dagoen, edo ba al du hartzaille horien instalazioak burutzeko beharkizunen zerrenda bat egiteko asmorik?

Departamentu honek ez du berri ofizialik jaso telebista digitalaren aparatu hartzailleetako instalatzaileen erregistroa ezarrita dagoen edo ezartzeko asmorik dagoen. Beste alde batetik, gauza jakina da Sustapen Ministerioa oinarritzko araua ari dela prestatzen eraikuntzetako telekomunikazio instalazioen baldintza teknikoak eta, ziur asko, instalatzaile baimendu izatera iristea ere erregulatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluekin eta hurrengoekin bat etorritz.

Iruñean, 1997ko azaroaren 21ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Las Cañasko natur erreserbara iristeko obren eta hainbat herritan markesinak egitekoen kontratazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Las Cañasko natur erreserbara iristeko obren eta hainbat herritan markesinak egitekoen kontratazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko kide den Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Las Cañasko natur erreserbara iristeko obren eta hainbat herritan markesinak egitekoen kontratazioari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zeintzuk izan dira zure Departamentuak presaz esleitu dituen obra-kontratuak? Zeintzuk larrialdia zela-eta?

Ondoren jarriko ditugu 1997an zehar, gaur egunera arte, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan presaz izapidatu diren kontratuak. Gogoratu ez dela gauza bera presaz izapidatu eta presaz esleitu.

A.- Herrilan Zuzendaritza Nagusian:

- Mendillorri eta Mendebaldeko ingurubidearen arteko bidegurutzea: 26,5 milioi pezeta.
- Eiaurrietako Osate erreka bideratzea: 20 milioi pezeta.
- Olatz Txipiko horma: 25,3 milioi pezeta.
- NA-7000 errepidea gotortzea Etxaurin: 16,5 milioi pezeta.

- Elortzeko industrialdeko irispidea: 16,5 milioi pezeta.

- N-111 errepidetik Las Cañasko natur erreserbara doan bidea eraberritzea: 16,3 milioi pezeta.

- Irati ibaiak Artiedan, Geretzen, Irunberrin, Arripodasen eta Artaxon egindako kalteak konpontzea: 16,9 milioi pezeta.

- CN-132 errepidea eta Tafallako Juncaleko bidea lotzekoa egokitu eta hobetzea: 12 milioi pezeta.

- Ultzama ibaiaren harri-lubeta konpontzea Atarrabian: 7,9 milioi pezeta.

- Castejóngo Montes del Cierzoko bidearen I. zatia egokitzea: 4,5 milioi pezeta.

- Castejóngo Montes del Cierzoko bidearen IV. zatia egokitzea: 7,7 milioi pezeta.

B.- Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusian: 6 markesinen kontratazioa Betelun eta Arribe-Atallun.

Ondoren jarriko ditugu 1997an zehar, gaur egunera arte, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan larrialdia zela-eta izapidatu diren kontratuak:

A.- Herrilan Zuzendaritza Nagusian:

- Castejóngo zubia konpontzea: 18,2 milioi pezeta.

- Lizarrako zubia konpontzea, CN-111 errepi-dean: 20 milioi pezeta.

- Lesakako zubia konpontzea: 20 milioi pezeta.

- CN-111 errepideko zorua konpontzea, Mañerun: 18 milioi pezeta.

- Lubizkiak konpontzea A-15ean, Leitzan eta Azpirotzen: 20 milioi pezeta.

– Euriteen kalteak konpontzea Santacara aldean, NA-132 eta Artederreta-Artaxona errepideetan: 40 milioi pezeta.

– Euriteen kalteak konpontzea Ariben: 28 milioi pezeta.

– N-121-A errepideko lubiziak konpontzea, Belate inguruan: 50 milioi pezeta.

– Buñuelgo irispidea konpontzea: 25 milioi pezeta.

B.- Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusian ez da larrialdiko kontraturik izapidatu.

2.- Departamentuak eutsiko al dio presako irispidea erabiltzeari?

Jakina, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak presako prozedura erabiltzeari eutsiko dio, horretarako arrazoiak daudenean eta indarreko legedian ezarritakoa betetzen denean.

3.- Zein izan da aipatu erabakiaren arrazoi zehatza? Zure bi zuzendaritza orokorretan gertatu baita eta obra oso ezberdinetan, gainera.

Las Cañasko natur erreserbarako irispidearen aldaketaren kasuan, larrialdikotzat jotzeko arrazoiak izan zen obra osoa aurtengo aurrekontu ekitaldian burutu beharra zegoela.

Markesinak eraikitzeari dagokionez, berriz, esleipena azkartzea komeni zela izan zen arrazoiak, aipatu herrietako eguraldia eta geunden garaia ikusita, ikasleek erabili behar zituztelako, gehien bat.

4.- Kontseilari jaunak ba al zekien obra horiek presaka kontratatatu behar zirela?

Herrilan Zuzendaritza Nagusiaren eta Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen banaz izapidatu ziren bi espedienteak. Kontseilari honek, hala ere, informazioa jaso zuen Departamentuaren jardueraren ohiko jarraipenaren baitan.

5.- Zeintzuk izan dira presako kontratazioa egiteko abagunea ikusteko arrazoiak? Zein da horri buruzko txostenen edukia? Noiz eman ziren txostenok?

Las Cañasko natur erreserbarako irispidearen obrez denaz bezainbatean, kontratazio-espedien-

teen kopia erantsi zaio honi, galdera horiei erantzuteko.

Markesinak eraikitzeaz, berriz, Garraio Zerbitzuak horri buruz emandako txostenen kopia erantsi zaio.

6.- Prozedura arrunta erabiliz gero, emaitza bestelakoa izanen zela uste al duzu?

Lehen esandako arrazoiengatik erabili bazen presako tramitazioa, epeak murrizteko baino ez zen izan. Hortaz, publizitatearen eta eskaintza askearen printzipioei eutsi zaie, eta ezin daiteke suposatu emaitzaren inongo aldaketarik.

7.- Zer lortu nahi da arau orokorretik aldentzen den prozedura batera jotzen denean?

Las Cañasko natur erreserbarako irispidearen obrez denaz bezainbatean, obra horiek presako prozeduraz izapidatzea arrazoitu duten txosten teknikoekin bat, obrak esleitzeko administrazio-epeak laburtzearekin lortu nahi zena zen obra 1997ko aurrekontu-ekitaldian burutzea, osorik.

Markesinak eraikitzeaz, berriz, esandako arrazoiengatik laburtu nahi izan ziren epeak.

8.- Lortu nahi ziren helburuak, ezin ziren ohiko kontratazioaren bidez erdietsi?

Las Cañasko natur erreserbarako irispidearen obretan ez, ziur asko, ohiko izapidatzearekin atzeratu egingen litzatekeelako esleipen-data, eta ondorioz, obra egitea, bukatzea eta likidazio ekonomikoa, 1997an egin ezinik geratzeko arriskua-ekin.

Markesinak eraikitzeaz, berriz, garraioaren erabiltzaileentzako kalteak eta eragozpenak saihestu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluaekin eta hurrengoekin bat etorritik.

Iruñean, 1997ko azaroaren 24an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Orokorraren egitura organikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Orokorraren egitura organikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentari Taldeko kide den Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Orokorraren egitura organiko berriari buruz. Hona Herri-lan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein da zure iritzia eta balorazioa aipatu Zuzendaritza Orokorrak, sortu zenetik gaur egunera arte, izan duen funtzionamenduari buruz?

Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Orokorrak, sortu zenetik gaur egunera arte, izan duen funtzionamendua paregabea izan da, izenpetzen duen Kontseilariaren ustez.

2.- Kontseilariak eta Nafarroako Gobernuak zer erabaki politiko hartu dute euren agintaldian aipatu Zuzendaritza Orokorraren esku utzi diren Nafarroako eskumenak bete eta garatzeari buruz?

Hona Garraio eta Telekomunikazio arloetan hartu diren erabaki politiko behinenak:

- Iruñerriko garraioaren hiria bultzatzea.
- Ciudad del Transporte de Pamplona, SA sozietate publikoa bultzatzea.
- Errepideko hiriko garraio publikoa arautzeari buruzko Foru Legearen aurreproiektua egitea.
- Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektua egitea.
- Nafarroako garraio-enpresak eguneratzeko laguntzen plana egitea.

- Bidaiariak errepidez, trenbidez eta hegazkinnez garraiatzeko zerbitzuei eusteko laguntzen plana egitea.

- Kableko telekomunikazio zerbitzuentzako barruti bakarra bultzatzea Nafarroako Foru Komunitaterako.

- Telekomunikazioen liburu zuriak proposatutako jardute-lerroak garatzea Nafarroako Foru Komunitatean.

- Ahots-, datu- eta irudi-sare korporatiboa jartzeari buruzko Foru Komunitatean.

- Telebista pribatuaren zerbitzuak hedatzea Foru Komunitatera.

- Frekuentzia modulatuak uhin metrikoen bidezko irrati-emisoreen emakida Nafarroako Foru Komunitatean arautzeko Foru Dekretua.

- Obras Públicas de Navarra, SA (OPNASA) sozietate publikoa bultzatzea, telekomunikazio zerbitzuak emateko.

3.- Zer erabaki politiko hartzeko asmoa du Kontseilariak Nafarroak aipatu gaien dituen eskumenak erabiltzeari buruz?

Departamentu honek 1998ko ekitaldirako eta hurrengoetarako erabiliko duen politika hurrengo jardute-ildoetan laburbiltzen da:

GARRAIOAK:

- Lehorreko garraioari buruzko arauak garatzea, gai horri buruz dagoen eskumen-esparruaren baitan. Errepideko hiriko garraio publiko arautzeari buruzko Foru Legearen aurreproiektua eta Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaz gain, 1998an ekingo zaio taxiaren zerbitzu publikoaren erregelamendu berria garatzeari.

- Nafarroako Foru Komunitateko garraioaren alorrari laguntza ematea eta bultzatzea, Europako Batasuneko garraio-merkatuaren baldintzen malgutzearen aurrean. Hurrengo laguntza-lerroak bultzatuko dira: garraio-enpresak eguneratzea, presakuntza eta Iruñerriko garraioaren hiria ezartzea.

- Iruñerriko garraioaren hiria bultzatu, garatu, eraiki eta martxan jartzea da Departamentu honen garrantzizko helburuetako bat.

- Errepide-, trenbide- eta hegazkin-garraio publikorako zerbitzuak mantendu eta bultzatzea.

TELEKOMUNIKAZIOAK:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak telekomunikazioen alorrean dituen jardueren artean, ondoren esango ditugu, aipatze aldera soilik, garrantzizkoentzat jotzen direnak:

- Nafarroako Foru Diputazioaren-Nafarroako Gobernuaren eskumenak erabiltzea. Oraingoz, behintzat, hauek dira, funtsean: frekuentzia modulatuaren bidezko irratsaio-zerbitzuak, lur-uhinen bidezko toki-telebista eta kable bidezko telekomunikazioa. Arlo horretako ikuskaritza bultzatuko da.

- Telekomunikazio zerbitzu eta azpiegitura finakoak eta mugikorrek sortu eta kudeatzea Nafarroako Foru Diputazioarentzako, haren ekintza-beharrizanen arabera. Nafarroako Gobernuaren Telekomunikazioen Plan Gidariaren azpiegiturak garatzea ere sartzen da puntu honetan. Administrazioaren modernizaziorako bide emanen du, telekomunikazio zerbitzu berriak bereganatuz, eta herritarrarekiko harremana erraztu eginen du, zerbitzuaren kalitatea hobetzeaz batera.

- Irratia eta telebista zabaltzeko zerbitzu publikoarentzako azpiegitura sortu eta kudeatzea.

- Foru Komunitatean den telekomunikazioen industri alorra bultzatzea, Foru Diputazioak bere sareak sortzeko burutu behar dituen jarduketa eta inbertsioak epe ertainean koordinatu eta planifikatuz.

- Telekomunikazio azpiegiturak sortu eta telekomunikazio-zerbitzuak emateko ardura duten eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzeta eta jarduketa-harremanak ezartzea, Foru Komunitatean baldintza egokiak lortzeko, gizarte eta industri politiketan ezarri diren helburuak erdiestearren.

4.- Zer eginkizun gehiago izango du egitura organiko berriak egun dagoenarekin konparatuz gero?

Urriaren 13ko 283/1997 Foru Dekretuak aldatu egin zuen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren egitura organikoa, irailaren 30eko 435/1996 Foru Dekretuak ezarri zuen hura, hain zuzen. 1997ko urriaren 24ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Foru Dekretu horretan zehazten dira Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak garatu behar dituen eginkizunak

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikularekin eta hurrengoekin bat etorritz.

Iruñean, 1997ko azaroaren 24an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--